



LAZKAOKO
UDALA

ZIRRIBORROA

**2024KO URTARRILAREN 22KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren 22an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko urtarrilaren 8an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 115 zenbakidun fakturen zerrenda, HOGEITA LAU MILA BOSTEHUN ETA HIRU euro ETA BERROGEITA ZORTZI zentimokoa (24.503,48 €), eta 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zenbakidun zerrenda, HOGEITA BI MILA BEDERATZIREHUN ETA BERROGEITA HAMASEI euro ETA HOGEITA HEMERETZI zentimokoa (22.956,39 €), bere espedientean daudenak, onartzea erabaki da.

III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 1. FASEAREN BERRURBANIZATIO OBRAREN KONTRATUAREN ALDAKETAREN ESPEDIENTEAREN ONARPENA.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2024-01-08an egindako bilkuran, Zubizkitza auzoko 1. fasearen berrurbanizazio obraren kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera ematea erabaki zuen; obrak Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresari esleitu zitzaizkion 192.307,09 eurotan, gehi BEZ.

Sasoi Eraikuntzak S.L.-k proposatu du aldaketa, eta hau, kontratua arautzen duen administrazio-klausula berezien agirian jasota ez dagoena, kontratuaren lizitazioaren unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortu diren inguruabarrek eragindakoa izan da.



Aldaketa kontratuaren epea luzatzean datza, 2024ko urtarrilaren 31 arte hain zuzen ere.

2024ko urtarrilaren 12an, entzunaldia eman zitzaion bai kontratistari, baita obra zuzendaritzari ere.

Legearen arabera emandako epean, kontratistak eta obra zuzendaritzak ez dute alegaziorik aurkeztu.

Espedientean gordeta dauden txosten teknikoekin bat etorriz, obra-kontratua aldatzeko nahitaezko betekizunak betetzen dira, hau da, SPKLko 203. eta 205. artikuluetan ezarritakoak.

Kontratu aldaketak ez du kontratuaren prezioa modifikatuko.

Aldaketarako espedientea onesteko eskumena kontratazio-organoak du, hots, Tokiko Gobernu Batzordeak, SPKLko bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarri denari jarraituta.

Aurrekoa kontuan hartuta, Tokio Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

LEHENENGOA. Honako kontratu hau aldatzeko espedientea onestea: "Zubizkitza auzoko 1. fasearen berrurbanizazio obra" burutzeko dena, Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresari adjudikatutakoa hasierako prezioa 192.307,09 euro gehi BEZ direlarik.

BIGARRENA. Aldaketa honen ondorioz, obrak betetzeko epea 2024ko urtarrilaren 31 arte luzatuko da.

HIRUGARRENA. Akordio hau kontratistari jakinaraztea, eta aditzera ematea, batetik, hamabost egun baliodun duela, hauxe jaso eta biharamunetik hasita, kontratuaren aldaketa gauzatzeko, eta, bestetik, zein errekurtsio jar dezakeen.

LAUGARRENA. Aldaketa argitaratzea kontratatzailearen profilean, SPKLko 207. eta 63. artikuluetan agindu denari jarraituta.

IV.- GEZ BIDEZKO KONTRATAZIOA, MATERIAL ELEKTRIKOAREN HORNIDURA KONTRATUA EZ LUZATZEA ERABAKITZEA.-

Udal honek, Alkatetzaren 2020ko azaroaren 13ko ebazpen bidez, Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez material elektrikoaren hornidura kontratatzeke hasi zuen esparru akordioaren kontratazio espedienteari (X20011) atxikipena ematea erabaki zuen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Diputatuak, FA-GO-2021-2047 Foru Aginduan ebatzi zuen BERDIN, SL (IFZ B20828372) enpresarekin burutzea Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez material elektrikoaren hornidura kontratatzeke esparru akordioaren (X20011) 1. eta 2. sortak, hasieran bi urterako, eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.



LAZKAOKO UDALA

Aurreikusitako mugaeguna iristear dela kontuan izanda, Gobernantza Departamentuak, 2023ko abenduaren 1eko Foru Agindu bidez, urte beteko lehenengo luzapena baimentzea erabaki du.

Honen aurrean, eta Zerbitzu Buruak egin duen txostena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honakoa erabaki du:

Lazkaoko Udalaren eta BERDIN S.L. enpresaren artean elektrizitate hornidurarako izenpetutako kontratuaren urte beteko luzapena ez gauzatzea.

V.- GEZ BIDEZKO KONTRATAZIOA, BULEGO MATERIALAREN HORNIDURA KONTRATUA-REN ESLEIPENA.-

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administraziolari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, 40.5.b) artikuluan emandako eskumenekin bat etorritik, Gobernantzako foru diputatuak 2023ko uztailaren 24ko Foru Aginduaren bitartez, MONTTE S.L., I.F.Z. B20062295, enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez fotokopiagailurako paperaren hornidura kontratatzeako esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, Udal teknikariak 2024ko urtarrilaren 18an emandako txostenaren arabera, aipatu horniketaren beharra dela eta, fotokopiagailurako paperaren horniduraren kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen hornidura zenbatetsiz, gutxi gora-behera, urteko 2.000,00 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua MONTTE S.L., I.F.Z. B20062295, enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGO.- MONTTE S.L., I.F.Z. B20062295, enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez fotokopiagailurako paperaren hornidura kontratatzeako esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- MONTTE S.L., I.F.Z. B20062295, enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurrerago ekitaldiari dagokion 2.000 gehi BEZ euroko gastua, udal aurrekontuan, progra-

ma ezberdinetan, fotokopiagailurako paper kontsumoaren gastua jasotzen duten 1 220.01 kontu sailen kargura.

VI.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKO PASABIDEAREN LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA (LIKIDAZIOA).-

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza errekaaren gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen hirugarren obra egiaztagiria egin du. Hirugarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa HIRUROGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI euro ETA BERROGEITA BOST zentimo (68.360,45 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMABOST euro ETA HIRUROGEITA BEDERATZI zentimo (14.355,69 €) da, guztira LAUROGEITA BI MILA ZAZPIEHUN ETA HAMASEI euro ETA HAMALAU zentimo (82.716,14 €).

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak, S.L. enpresa ari da burutzen.

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), hirugarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

VII.- ZUBIZKITZA AUZOKO 1. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 3. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Zubizkitza auzoko 1. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen hirugarren obra egiaztagiria egin dute. Hirugarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa HOGEITA ZORTZI MILA LAUREHUN ETA BOST euro ETA BERROGEITA HAMAHIRU zentimokoa (28.405,53 €) gehi B.E.Z.ari dagokion BOST MILA BEDERATZIREHUN ETA HIRUROGEITA BOST euro ETA HAMASEI zentimokoa (5.965,16 €) da, guztira HOGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR euro ETA HIRUROGEITA BEDERATZI zentimokoa (34.370,69 €).

Lanak SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), hirugarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.

VIII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-



LAZKAOKO UDALA

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 23-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea onuradunak eskatuta urtarrilaren 11tik aurrera.
- 23-11-14 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea urtarrilaren 4tik aurrera, astean 10 orduz garbitasun pertsonalean eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 23-11-10 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea urtarrilaren 15etik aurrera, astean 10 ordutik 11 ordura. Ordu hau larunbat goizetan izango da. Onuradunen ekarpena % 2koa izango da.
- 22-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea urtarrilaren 15etik aurrera, astean 9 ordutik 18 ordura. Onuradunen ekarpena % 35koa izango da.
- 23-11-11 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea, onuradunak eskatuta, otsailaren 1etik aurrera.
- 316 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja ematea, onuradunak eskatuta, 2023ko abenduaren 29tik aurrera.

Epe luzean ingresaturik daudenentzako dirulaguntzak.-

- 20-18-01 zenbakidun esped.: garraiorako, 72,37 €-ko dirulaguntza ematea urtariletik abendura, bere semea bisitatzeko Arrasateko Aita Menni Ospitale Psikiatrikoan ingresaturik dagoelako.

Familia laguntzak.-

- 23-15-04 zenbakidun esped.: esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Urtariletik ekainera arteko aurrekontua 2.798 €-koa da.
- 23-15-01 zenbakidun esped.: esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Urtariletik ekainera arteko aurrekontua 5.245 €-koa da.
- 23-15-02 zenbakidun esped.: esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Urtariletik ekainera arteko aurrekontua 5.245 €-koa da.
- 23-15-03 zenbakidun esped.: esku-hartze psikoterapeutikoarekin jarraitzea. Aurrekontua 1.065 €-koa da.

IX.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatiko dirulaguntzen deialdia.-

Norgehiagoka-erregimenean, euskararen sustapenerako dirulaguntzen artean, gida baimena euskaraz ateratzeagatiko dirulaguntzen 2024rako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2024ko gida baimena ateratzeagatiko dirulaguntzen deialdia onartzea erabaki du.

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 260 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatiko dirulaguntza.-

2023. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Ikasle bakarra izan da, bere espedientearen datuen arabera, eta 100 € emango zaizkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

X.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Zawopi Aisialdi Taldeari.-

2024ko Gabonetan errege kabalgata eta astotxo eguna antolatzeagatik, 2023 urtean horretarako izendatu zen partidatik ordaintzeko falta den 2.500 €-ko bigarren zatia ordaintzea.

Bestalde, ekintza bera antolatzeagatik, beste 1.199,77 € ordaintzea 2024an horretarako izendatutako partidatik.

Honakoak partida hauetatik egin behar dira ordainketak:

1 481.09.334.00 2023

1 481.09.334.00 2024



XI.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapen Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei Gabonetako erakusleihen lehiaketako sari-bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako 2023ko Gabonetan burututako erakusleihen lehiaketaren kanpainaren barruan, parte hartu duten hainbat merkatariei beren saltokietan jaso eta ekarri dituzten bonuen arabera lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
MILA MTNEZ. LOPEZ DE DICASTILLO (DIGITAL IZAR)	10 €
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	15 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	100 €
NEKANE GARMENDIA MUGICA Y OTRA CB (GARAIZ)	270 €
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	200 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	90 €
GUZTIRA	685 €

XII.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremu Batzordetik baserritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

Lazkaoko Baserritarren Tresna Elkarteari.-

2023ko Udal aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 2023ko aurrekontuaren 471.01.412.00 partidatik egingo da.

Antsoategi Elkarteari.-

2024ko urtarrilaren 7an ospatu zen Astotxo egunaren baitan, Enkarterrietako astoaren arraza erakusketa eta lehiaketa burutu ziren. Ospakizun honen antolakuntza lanei aurre egiteko, Antsoategi elkarteari emateko falta den bigarren zatia, 2.000 €-koa, ematea.

XIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XIV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA